



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

## UDALAREN OSOKO BILKURA 2004ko apirilaren 29ko ohiko bilera

### BERTARATU DIRENAK ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV/EA.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

### ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.  
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.  
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.  
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.  
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.  
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.  
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.  
IU-EB.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.  
IU-EB.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.  
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

### EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYÁ jn.

### IDAZKARIA

M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta laurok apirilaren hogeita bederatziko iluntzeko zortziak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-Udalburua, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola** jauna izan da bileraren burua eta idazkariak, **M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA** andreak, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkatetza-Udalburutzak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

## I.- ERABAKITZEKOAK

**1.- UDALAREN OSOKO BILKURAK 2004ko URTARRILAREN 22an EGINDAKO BATZARRAREN AKTA ONESTEA:** Izenburuan aipatutako bilkurako akta onetsi gabe dagoela aipatu da; beraz, udalbatzaren osoko bilkurak onesteko jarri da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalbatzak, Osoko Bilkuran eta **aho batez**, 2004ko urtarrilaren 22ko bilerako akta onetsi du.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

**2.- PREMIAZKO ARRAZOIENGATIK EMANDAKO DEKRETUA; HORI, ROMAN ZUBIETA ORIBE JAUNAK, SABINO ARANA ETORBIDEKO 17. ZENBAKIKO ETXEBIZITZEN JABEEN ORDEZKARITZAN, 24-C ARLOA (UDONDO BULEBARRA) BERRIRO ZATITZEKO PROIEKTUAN LEIOAKO UDALAK DITUEN ERAIKUNTZA ESKUBIDEEN ENKANTEA ARAUTZEN DUTEN BALDINTZEN PLEGUEN KONTRA AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI BURUZKOA DA.**

2004ko apirilaren 6an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 276/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak 2004ko martxoaren 31n hartu zuen 56. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Alkatetza-udalburutzak martxoaren 31n premiazko izaeraz emandako 273/04-O.T. dekretuaren edukiaren berri eman da:

“Alkatetza-udalburutza honek udaleko Bulego Teknikoak 2004-03-30 egunean emandako txostenaren berri izan du; honakoa dio, hitzez hitz:

“Udalaren osoko bilkurak 2004ko otsailaren 26an hartutako erabakiaren bitartez, Leioako udalak onetsi egin zuen udaleko Zerbitzu Teknikoek idatzitako baldintzen plegua, Leioako udalak HAPOaren 24 C arloa (Udondo bulebarrak) berriro zatitzeko proiektuan dituen eskubideak eskualdatzeko asmoz.

*Toki Araubidearen arloan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bat Eginaren 122. artikuluan ezarritakoaren arabera (apirilaren 8ko 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretuak onetsi zuen), baldintzen plegua 8 laneguneko epean azaldu zen jendaurrean, horri buruzko iragarkia BAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatuta.*

*Aipatutako iragarkia 2004ko martxoaren 12ko 50. BAOn argitaratu zen. Horretarako ezarritako epean (2004-03-23 egunean eman zuen Posta zerbitzuan) Román Zubieta Oribe jaunak, Sabino Arana etorbideko 17. zenbakiko higiezinean dauden etxebizitzaren 8 titularren ordezkariak diharduela esanez, adierazi zuen bere ustez baldintzen pleguak berriro zatitzeko errekurtsioak 2003ko abenduan zuen onespen kudeaketaren egoera juridikoa islatzen duela; bada, aipatutako agiriaren behin betiko onespenaren administrazio-ekintza administrazio bidetik artean irmoa ez dela azaldu zuen eta, ondorioz, aipatutako higiezineko etxebizitzaren jabeak errekurtsioak aurkez zitzaketela horien kontra.*

*Román Zubieta Oribe jaunak dio 2004ko otsailaren 19an jabeen prozesu-ordezkaritzak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri zuela Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietarako Salaren aurrean 721/03-O.T. dekretuaren kontra; horrek behin betiko onetsi zuen berriro zatitzeko proiektua. Hori dela eta, bere ustez, prozesu-tramite berria agertu beharko litzateke adjudikazioduna lotzen duen baldintzen pleguan.*

*Hori dela-eta jakinarazi da eskubideak eskualdatzeko baldintzak arautzen dituen baldintzen pleguak, hasiera batean, eskubideak mugatu baino ez duela egin behar, administrazio-espeditatean agertzen den bezala, eta eskuratzaileren konturakoak izango direla eragiketaren emaitzari atxikitako arriskuak. Hala eta guztiz ere, udaleko Bulego Teknikoak pentsatu zuen interesgarria izango litzatekeela gai honetan dauden inguruabarrak azaltzea, enkante bidezko enpresa adjudikaziodunak ahalik eta hoberen balioztatu ahal izateko eragiketaren arriskuak. Hori dela eta, baldintzen pleguan hainbat informazio erantsi ziren espeditatearen tramitazio egoerari buruz eta, horrela, administrazio aldetik irmoa ez zela eta errekurtsioak aurkezteko aukera zegoela adierazi zen, batez ere Sabino Arana etorbideko 17. zenbakiko higiezineko jabeek aurkez zezaketela errekurtsioak. Ondorioz, enkantean interesa duten enpresek*



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

*behar bezala balioztatu dituzte eskubideak eskuratzeak dakartzan arriskuak, artean erakunde egokien aurrean (administraziokoak zein epailetzakoak) argitu beharreko eztabaida ugari daudela. Interesdunaren asmoa ezin da izan oinarri batzuk etengabe aldatzea, auzi batean gauzatzen doazen prozesu-tramite ezberdinen arabera. Nolanahi ere, ez litzateke eragozpenik egongo adjudikazioaren eskritura publikoan Sabino Arana etorbideko 17. zenbakiko higiezinako jabeek administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkeztu zutela deskribatzeko.*

*Hori guztia dela eta, honako erabakiak hartzearen aldeko irizpena eman da:*

- *Alkatetza-udalburutzaren dekretuaren bitartez, premiazko izaeraz onetsiko da txosten honen edukia eta, eta hedadura guztian mantenduko da udalaren osoko bilkurak 2004ko otsailaren 26an egindako bileran hartutako 9. erabakian hitzartutakoa. Dekretua udalaren osoko bilkurak egingo duen lehenengo batzarrean berretsiko da, enkantearen behin betiko adjudikazioa egin baino lehen,*
- *Mantendu egingo da enkanteko proposamenak irekitzeko egutegia”.*

Ondorioz, honen bitartez, honakoa

#### XEDATU DUT

Guztiz berretsiko da udaleko Bulego Teknikoak emandako txostenaren edukia, dekretu honen azalpenean hitzez hitz azaldu dena, alegia.”

**Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak** jakinaren gainean eta ados dagoela adierazi du; beraz, dekretu honen edukia berretsi beharko da udalaren osoko bilkurak egingo duen lehenengo batzarrean.

#### **EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

**IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du bai puntu honetan eta bai hurrengoan abstenitu egingo direla, batez ere, beren ustez ez delako egokia Udalak eskubide horiek enkantean ateratzea; ondorioz, prozesuari eragozpenak ipini nahi ez dioten arren, onetsi ere ez dute egin nahi.

#### **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalbatzak osoko bilkuran eta **gehiengoaren** aldeko botoarekin, martxoaren 31ko 273/04-O.T. dekretua eta Alkatetza-Udalburutzaren 2004ko apirilaren 6ko 276/04 ebazpena **berrestea erabaki** du, deskribatutako terminoetan. Hauxe izan da bozketaren emaitza: aldeko hamazortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak eta PPko lau zinegotzienak; era berean, bi abstentzio egon dira, IU-EBko bi ordezkariak, alegia.

**3.- 24-C ARLOA (UDONDO BULEBARRA) BERRIRO ZATITZEKO PROIEKTUAN LEIOAKO UDALAK DITUEN ERAIKUNTZA ESKUBIDEEN ENKANTERAKO AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK IREKITZEA.** 2004ko apirilaren 6an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 277/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak 2004ko martxoaren 31n hartu zuen 54. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udaleko Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute udalaren osoko bilkurak 2004-02-26 eguneko batzarrean hartutako 9. erabakiaren bitartez, Leioako udalak onetsi egin zuela Leioako Udalak HAPOaren 24 C arloa (Udondo bulebarra) berriro zatitzeko proiektuan dituen eskubideak eskualdatzeko prozedura arautzeko baldintzen plegua; horren lizitazio-oinarria 5.000.000,00 eurokoa da (BEZ aparte).

Horretarako ezarritako epean, 9 eskaintza aurkeztu dira eta horiek ekitaldi publikoan ireki dira. Lehenengo eta behin, A gutunazalak (kontratatzeko gaitasun eta kaudimena) aztertu dira; Batzordeak, Kontratazio Mahaia den aldetik, aurkeztutako agiriak aztertu ditu, batez ere bankuko abala emateari dagokionez; izan ere, 100.000,00 euroko zenbatekoan, behin-behineko bermea da. Agiriak aztertu ondoren, eskaintza guztiak onartzeko erabakia hartu da eta, jarraian, B gutunazalak (proposamen ekonomikoa) ireki dira. Honakoa izan da emaitza:

Zk	ENPRESA	ZENBATEKOA (BEZ APARTE)
1	LARCOVI, S.A.L.	7.807.087,00 €
2	ABAROA, S.A.	7.300.000,00 €
3	CONSTRUCCIONES OLABARRI, S.L.	8.663.050,00 €
4	VALLEHERMOSO, S.A.U.	9.478.278,00 €
5	NEINOR, S.A.	9.530.000,00 €
6	PROMOTORA VIZCAINA 2003 UTE	9.205.100,00 €
7	PROMOCIONES URBANISTICAS ARTEA	6.441.840,00 €
8	ROLIRKA, S.L.	7.651.115,00 €
9	ARISA INVERSIONES, S.L.	7.103.542,00 €

Enkantea amaitutakoan, bertaratu diren ikus-entzuleetako batek adierazi du Sabino Arana kaleko 17. zenbakiko eraikinean dauden etxebizitzan jabeen izen eta ordezkaritzan jardun duela. Bada, adjudikazio honetan interesa duten sustatzaileek berriro zatitzeko proiektuaren behin betiko onespeneraren kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri dela ba al dakiten galdetu du. Batzordeko idazkariak erantzun dio adjudikazio hauek arautzen dituen baldintzen pleguak jada zehaztu zuela etxebizitza horietako jabeek errekurtsoak aurkez zitzaketela, bai administrazioaren alorrean bai epailetzaren alorrean eta, horrenbestez, enkantean parte hartu dutenek badakizkitela nolako arriskuak dituzten eragiketa honetan. Logikoki, baldintzen plegua idatzi eta onetsi zenean inork ez zekien administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarriko zenik, baina ez dago inolako eragozpenik inguruabar hori enpresa adjudikaziodunari jakinarazteko. Nolanahi ere, gai honetan idatzizko eskaera egin denez, horri buruzko txostena egin da eta interesdunari behar bezala jakinaraziko zaio. Apelazioa egin duen pertsonak nahikotzat jo du idazkariak emandako azalpena.

**Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak** honako jarduerak egitearen aldeko irizpena eman du:

- Behin-behinekoz adjudikatuko zaio NEINOR, S.A. enpresari Leioako Udalak HAPOaren 24 C arloan (Udondo bulebarra) dituen eskubideen eskualdaketa; zenbatekoa: 9.530.000,00 euro (BEZ aparte).
- Behin-behineko adjudikazio hau, osoko bilkuraren bidezko erabakiaren bitartez behin betiko bihurtutakoan, eskritura publikoa gauzatu beharko da notario aurrean, udalaren osoko bilkurak adjudikazioa egin eta hurrengo 15 eguneko epean; bertan, enkantea arautu duen pleguan adierazitako baldintzak agertu beharko dira.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- Baldintzen pleguko 7. klausularen arabera, ordainketa jarraian zehaztu den bezala egingo da:
  - \* Zenbatekoaren %20 (1.906.000,00 €), eskritura publikoa notario aurrean gauzatutakoan emango da.
  - \* Gainerako %80 (7.624.000,00 €) gehienez 15 laneguneko epean emango da, honako inguruabarren bat betetzen denetik aurrera zenbatuta: (Lehenengoa denboran):
    - ✓ Berrito zatitzeko proiektua Jabetza Erregistroan inskribatzea.
    - ✓ Obretako lizentzia eskatzea.
  - \* Inola ere ez da obretako lizentzia emango prezio guztia eman ez bada.
  - \* Prezioaren gainerako zatia (%80, hau da, 7.624.000,00 euro) kobratuko deneko berme gisa, Neinor, S.A. enpresak lehenengo eskakizuna burutu daitekeela adierazten duen eta indarraldi mugatua duen bankuko abala emango dio Leioako udalari; era berean, uko egingo die eskusio, ordena eta banaketa onurei, baldintzen pleguan erantsi den eremuaren arabera.
- BAOen eta egunkarietan iragarkiak jartzeko publizitate gastuak 1.600,00 €-tan kalkulatu dira eta Neinor, S.A. enpresak eskritura publikoa gauzatu aurretik eman beharko du kopuru hori.
- Irizpen honen edukiaren berri Kontabilitate Sailari emango zaio, aurrekontuko gordailu egokiak egin ditzan.

## EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak osoko bilkuran eta **gehiengoaren** aldeko botoarekin, Leioako Udalak HAPOaren 24 C arloan (Udondo bulebarra) dituen eskubideak NEINOR, S.A. enpresari eskualdatzeko behin-behineko adjudikazioa **onestea erabaki** du. Bada, guztiz berretsi ditu Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumen Saileko Informazio Batzordeak 2004ko martxoaren 31n hartu zuen 54. zenbakidun irizpena eta Alkatetza-Udalburutzaren apirilaren 6ko 277/2004 ebazpena. Hauxe izan da bozketaren emaitza: aldeko hamazortzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzianak eta PPko lau zinegotzianak; era berean, bi abstentzio egon dira, IU-EBko bi ordezkariak, alegia.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

**4.- MENDIBILE JAUREGIA ELKARTEA SORTZEA ETA ELKARTE HORI ERAENDUKO DUTEN ESTATUTUAK ONESTEA:** 2004ko apirilaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bilera onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 333/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Kultura, Kirola eta Gazteria Saileko Informazio Batzordeak 2004ko apirilaren 20an hartu zuen 98. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da.

Kultura Arloko zuzendariak emandako informazioaren arabera, aurreko Batzordean "Mendibile Jauregia" Elkartearen Estatutuei buruzko zirriborroa aurkeztu zen, eta aldarazpenik egin ez denez, honako proposamen hau aurkeztu da onespena emateko:

"MENDIBILE JAUREGIA" proiektuaren sustatzaileak diren Leioako Udalak eta Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzaileak azpiegitura bat sortzea bultzatu zuten, Leioako udal mugartean dagoen Mendibile Jauregia eta baserria birgaituta, Txakolinaren eta oro har nekazaritzako elikagaien inguruko erreferentzi gunea izateko. Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen egoitza izateaz gain, Mendibile Jauregia mantentzen eta geroari begira kudeaketak egiten parte hartzera bultzatu nahi dira beste erakunde publiko eta pribatu batzuk. Horretarako, Mendibile Elkartearen funtzionamendua gizarte, kultura eta ekonomia mailako jarduerekin bateratuko dira, betiere gaikako museoak sortzea eta abiaraztea, sustapen jarduerak, bussines center delakoa eta Leioako gizarte eta ekonomia sarearen mesederako beste edozein jarduera barne direla.

Eraikina ondare-higiezina da, eta LPPk duen ekipamendu izaerari erantzuna emanda, ekipamendu, azpiegitura, ekonomi jarduera eta abarren arteko erabilera ahalbidetzen du, eta aldi berean errealitate desberdinetarako balio izango du. Izan ere, LPPk duen ekipamendu izaera, kolektibitateentzat irekita dagoen zerbitzu gune gisa, udal planeamendu orokorretik datorren tradiziozko ekipamendua baino zabalagoa da.

Leioako Udalak askoz proiektu handizaleagoaren aldeko apustua egin zuen, Udalak lantzen dituen parte-hartze kolektiboaren inguruko politikak oinarritzat hartuta eta Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen xedapenen itzalpean. Izan ere, Lege horren 69. artikuluan haxe ezarri da, herritarren informazioaren eta parte-hartzearen inguruan: *"Tokiko Korporazioek jarduerari buruzko informaziorik zabalena emango dute eta herritar guztiek herriko bizitzan parte-hartzea erraztuko dute"*, eta *"Korporazioek, beren antolakuntza egiteko duten ahalmena erabilia, parte hartzeko ezartzen dituzten moduek, baliabideek eta prozedurek ez dute inola ere gutxietsiko legean araututako ordezkarietako organoek erabakiak hartzeko duten ahalmena"*.

Gainera, Kapitulu bereko 72. artikulua haxe dakar: *"Tokiko Korporazioek elkartearen garapena erraztuko dute herritarren onura orokorren edo arlokako onuren alde, jarduerari buruzko informaziorik zabalena emango diete eta, ahal duten neurrian, baliabide publikoak eta dirulaguntzak eskuratzeko bideak emango dituzte beren jarduerak egiteko. Bestalde, Korporazioaren kudeaketan parte hartzea bultzatuko dute, 69. artikulua 2. zenbakian ezarritakoaren arabera. Horretarako, herri onurakoa izan daitezke."*

Horren guztiaren fruitu gisa, eta gainera zentroa garatzeko parte-hartze eta ekimen pribatuetara zabaltzeko borondate argiarekin, jarduerak modu malguan eta dinamikoan sortzeko, bere izaera juridikoa izango duen erakundea sortzea hautatu da, autokudeaketa, autofinantzaketa eta mezenasgoaren bidez finantzazio pribatua erakartzea ahalbidetuko dituena. Gainera, tokiko eta tokiz gaindiko ahalik eta eragile gehienen parte-hartzea bultzatuko du. Irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta ez du jabetza zergapetzeko eskatzen, ezta jabetza erakundea sortzearekin lotzeko ere. Izan ere, Ondasunen Arautegiaren 109.2 artikulua



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

araberako lagapen akordioa baino ez da eskatzen, betiere azaldu diren helburuen arabera Elkarreak ondasunak kudeatuko dituen denboran.

Irabazi-asmorik gabeko Elkarrea sortzearen aldeko aukera egin da, herri onurakotzat hartua izateko asmoarekin sortu den Elkarrea hain zuzen, prozedura aplikagarriaren arabera. Izan ere, hauxe da Elkarrearen helburua: *"Gizarte eta ekonomi sarea sustatzeko, modu endogenoan garatzeko eta dinamizatzeko jarduerak egitea, bereziki Bizkaiko Txakolinaren, Leioa udalerrriaren eta nekazaritzako elikagaien inguruan"*, betiere honako hauetan xedatutakoari helduta: Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Elkarreei buruzko otsailaren 12ko 3/1998 Legean (Eusko Legebiltzarrak onetsia), Euskadiko Autonomia Estatutuaren 9 eta 10.13. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz.

Hauexek eraenduko dute Elkarrea: Elkarreei buruzko legearen arauak; Estatutu hauek, Legearen kontra ez badatoz; gobernu organoek arauen arabera hartutako erabakiek, Legearen edo/eta Estatutuen kontrakoak ez badira; eta Eusko Jaurlaritzak onetsiko dituen arauzko xedapenek (xedapen horiek ordeztailak baizik ez dira izango).

*"Gizarte eta ekonomi sarea sustatzeko, modu endogenoan garatzeko eta dinamizatzeko jarduerak egitea"* da Elkarrearen helburua, *"bereziki Bizkaiko Txakolinaren, Leioa udalerrriaren eta nekazaritzako elikagaien inguruan"*.

Batzordearen txostena jasotzeko aurkeztutako Estatutuek eraenduko dute MENDIBILE JAUREGIA Elkarrea, antolakuntza, kudeaketa eta abarri dagokienez, eta Leioako Udalari itzuliko zaizkio sobera gelditu diren ondasunak, horien kitapena gertatu bada. Udalak berekin gordetzen ditu higiezinaren lagatzailea eta kide sortzailea izateagatik lortzen dituen onurabideak, eta bestetik kudeaketa organoetan sortzaile eta lagatzaile gisa parte hartzeagatik eskuratzen dituen onurabideak, betiere Leioaren interesen alde egiteko.

Estatutu hauen inguruko informazioa eman dute Euskadiko Elkarreen Erregistroko zerbitzu juridikoek. Honekin batera txostena doa.

Tokiko Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.2. artikuluekin bat etorriz (Tokiko Gobernuaren modernizatzeko neurriei buruzko abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldarazia), *erabakia hartzeko Udalbatzako kideen legezko gehiengo osoaren aldeko botoa BEHAR DA:*

*g) Mankomunitateak edo bestelako elkarteak sortzea, aldatzea edo desegitea, baita horietako kidea izatea eta estatutuen onespina eta aldarazpena ere.*

Hori dela-eta, Batzordeak aldeko txostena eman dezan honakoa aurkeztu da:

- 1.- Onetsi egingo da Mendibile kaleko 42.ean dagoen Mendibile Jauregia izeneko Elkarrea sortzea.
- 2.- Onetsi egingo da Mendibile Jauregia Elkarrea eratzea, eta baimena emango zaio Karmelo Sainz de la Maza alkate-udalburuari Elkarrearen Eraketa Akta emateko Leioako Udalaren izenean, baita ekitaldi horretan Leioako Udalaren izenean Estatutuak onesteko ere.
- 3.- Onetsi egingo da Zuzendaritzako Batzaren izendapena Mendibile Jauregia Elkarrearen Estatutuen arabera.
- 4.- Ahalmena emango zaio alkate jaunari sortutako erakundea Eusko Jaurlaritzaren Elkarreen Erregistroan inskribatzeko beharrezko kudeaketak egiteko Mendibile Jauregia Elkarrearen izenean, betiere proposamenean ezarritakoaren arabera, publizitatearen eta Estatutuen ondorioetarako baino ez. Eraketa Akta Eusko Jaurlaritzari bidaliko zaio, bazkide sortzaileek sinatuta.

**Kultura, Kirola eta Gazteria Saileko Informazio Batzordeak** akordioaren aldeko txostena eman du ezarritakoaren arabera.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

## EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta Estatutuen 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, Leioako Udalaren ordezkaria izango da presidentea bi urterako, presidenteordearekin txandakatuta. Hortaz, Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate-udalburua izango da presidentea; eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Mendibile Jauregia Elkartearen estatutuak Leioarentzat proiektu ona iruditzen zaiela adierazi nahi izan du, Elkartea, hasiera batean, Mendibile proiektuaren sustatzaile gisa sortu baita, eta bai txakolinaren industriarako eta bai Leioako nekazaritzako elikagaien arlorako ona dela uste dute, bultzada handia eman baitiezaioke Leioari, gizarte zein ekonomia mailan. Beraz, positiboa dela irizten diote, eta elkarteak bere eginkizunak eraginkortasunez betetzeko baino ez dute eskatzen. Haien ustez, udalari dagokio horren inguruko ardura hartzea.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

Estatutuen testuak dakarrenez, Elkarteko kideak izateko lau bazkide daude: Leioako Udala eta Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzailea bazkide sortzaile gisa; eta Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak, Nekazaritza eta Arrantza Sail bien bitartez; Elkarteko kideak izan nahi dutela adierazi dute, eta une honetan erakunde bi horiek elkartean bazkide sortzaile gisa edo zenbakidun bazkide gisa sartzeko modua aztertzen ari da. Horri dagokionez, bazkide gisa sartzea oso garrantzitsua da, proiektua ez baitago lotuta Mendibile proiektuarekin bakarrik; izan ere, bestelako eginkizunak ere ezarri dira: Kontseilu Arautzailearen egoitza, museoen jarduerak edo azpiegitura, nekazaritzako elikagaien arlo osoaren bussines center delakoa, arlo horretako bilgunea, gizarte eta kulturako jardueretarako plataformaren eskaintza, etab.

Azkenik esan du Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiak parte hartzeak garrantzi handia duela, aparteko gertaera dela, eta parte-hartze hori Elkartean sartzeko akordioan ezarritakoaren arabera izango dela.

**PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak** honakoa adierazi du:

Pozik agertu da Txakolinaren Kontseilu Arautzailea Leioan jarriko dela ikusita, eragin ona izango duelako nekazaritzako eta abeltzaintzako arloan. Ondo irizten diote baserria birmoldatzeko prozesu osoari, udalerrarentzat ona dela uste dutelako.

Horren inguruan esan du Mendibile Jauregiari buruz beste egun batean ere planteatu zuen zalantza bat duela: Jauregiaren kultura jarduerak udalerraren beraren kultura jarduera gaindituko ote duen, herriko hainbat taldek gunen hori erabil dezaten beren jardueretarako, adierazpen moduetarako, etab. Beraz, horren inguruan Gobernu Taldeak duen borondateaz galdetu dio Alkate jaunari.

**Alkate-Udalburuak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

Hainbat biderrez kontatu duenez, azpiegituraren multzoak gunen bat izango du, laster Batzordean jorratuko dena, eta Batzorde horretan kezka guzti horiek zehazteko proposamen konkretuak planteatuko dira: Bizkaiko Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen egoitzarako lokal bat izango da, eraikinaren barruan museorako beste gunen bat egongo da eta, jakina, erabilera askotarako balioko du, hau da, bestelako erakusketak egiteko, esate baterako Leioako



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Kastoreen elkartearekin. Elkarte horrek ingurumen eta naturaren inguruko gaiak lantzen ditu: fauna, arrantza, e.a. Arrantzari buruzko aste bat antolatu daiteke, beti antolatzen den moduan, eta aste horretan erakusketarako atal bat eta beste bat hitzaldietarako egon daitezke. Gainera, erabilera askotarako areto bat dago, eta areto horretan nekazaritzako elikagaien inguruko hitzaldietarako ez eze, une jakin batean bestelako gaietarako ere erabil daiteke, naturaren, tokiko garapenaren eta Leioako eta Leioatik kanpoko gizarte eta kultura mailako dinamizazioaren inguruko gaiak hain zuzen.

Elkartearen asmo nagusia hori dela adierazi du eta, Leioako Udalak, jakina, proiektuaren diseinuan eta lan-programan hartzen du parte. Esandako guztia sartu ahal izango da, eta gehiago ere bai, zeren aeromodelismoari buruzko erakusketa bat ere antolatu baitaiteke. Izan ere, gai hori programazioan sar daiteke. Gainera, bestelako guneak ere egongo dira hala nola bussines center delakoa. Gune horretan, txakolinaren munduan edo nekazaritzako elikagaien arloan lan egiten duen jendearekin batzarrak egin daitezke, edo horren inguruko hitzaldiak edo hedapen lana, baina ez da baztertzen Andrak-ek, esate baterako, jarduerak, etab. egiteko batzar bat egitea bertan.

Horri dagokionez, Mendibile Jauregia zabaltzeko asmo sendoa dagoela esan du, baita parkea ere, hau da, eraikinaren azpiegitura bera nahikoa handia dela, helburua jarduerak izatea eta Leioako gizarte, kultura eta ekonomia mailako sektoreak dinamizatzea delako, baita azpiegitura horretan inongo arazo barik egin daitezkeen Tokiko Agenda 21eko jarduerak ere.

Ildo horretan, Bizkaiko Transbordadorearen Elkartearen bisita izan zuela adierazi du; izan ere, berriki ardogintza-mahastigintzan diharduten hirien nazioarteko lehiaketan hartu dute parte. Lehiaketa horretan, Bilboren eta Errioxaren ordezkaria izan zen Bilbo, eta berari adierazi ziotenez, Mendibile Jauregiaren inguruko planteamendua ikusi dute eta oso planteamendu ederra iruditzen zaie. Gainera, haiek egiten duten turismo ibilbidearen barruan, turismoa eta aisialdia bultzatzeko elkarteko atal bat dutela esan zioten, eta horretarako artea, parkeak, hondartzak, etab. ikusteko programa turistikoak egiten direla. Programazio horretan, ardogintzaren inguruko ibilbide bat dagoenez gero, oso interesgarri irizten diote, Euskadiko turismo ibilbidean, Zubi Esekia ikustera joateari, gero Mendibile Parkea bisitatzeari Artaza-Pinosolo Parkearekin batera eta ardogintza-mahastigintzaren ibilbide horretan txakolina aurkitzeari.

Azkenik esan du ardatz bakarra ez dela izango txakolina, baizik eta lehen sektorean, turismoaren sektorean, sektore ekonomikoan eta gizarte-kulturako dinamikan ere izango duela eragina.

**IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Jose Manuel Toledo jaunak adierazi duenez, historia luzea da, baina ezin da ahaztu zelan hasi zen; izan ere, baserriaren okupazioarekin hasi zen, gaztetxea arazoak sortzen hasi zenean, eta Udalak arazoari aurre egitea erabaki zuen lehenengo fasean okupatzaileekin negoziatzeko prest agertuta, jarrera irekiarekin etab.; eta gero, negoziatzen jarraitzerik ezin zuenez, eraikinaz jabetu zen lagapenaren bidez, eta une honetan eraikinari eman beharreko helburuari buruzko proposamenak egiteko fasean gaude.

Era berean, Mendibile Jauregian egin beharreko jarduerak aldakorrak izan direla esan du. Ondoren, udalaren aldizkari batean Txakolin Etxea izendapena agertu zen, eta orain esaten da eraikinaren zati bat Txakolinaren Kontseilu Arautzailearen egoitza izango dela: areto txiki bat txakolina dastatzeko eta txakolinaren museoa jartzeko izango da, eta beharbada jantoki bat eta super-jatetxe bat izango dira albo batean super-adosatu bat dutela. Ez dira zehazten erabilera askotarako aretoak; eraikinaren beheko solairuetan entseguak egiteko aretoak izango direla esaten da, baina une honetan ez dago zehaztuta behin betiko erabilera. Horri dagokionez, puntu hau onetsi baino lehen proiektua behin betiko zehaztu beharko litzatekeela esan du. Halaber, Udalak elkartean ordezkaritza izango duela esan dela ere adierazi du, eta horren



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

inguruan esan du ea ordezkariak erabat demokratikoa izango den edo Udalak parte hartzen duen erakunde guztietan egiten den hautaketa egingo ote den.

Azkenik esan du, prozesuaren kontra egon ez arren, ezin dutela aldeko botorik eman koherentziarik gabeko eta zailtasun handiko ibilbidea jarraitu delako. Hortaz, abstenitu egingo dira gai honen inguruan.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

IU-EBko bozeramaileari erantzun dio Alkate denetik gai honen inguruan heltze-prozesua gertatu dela Mendibile Jauregiaren helburuei dagokienez, baita lortu beharreko errendimenduari eta herritarrei eman beharreko zerbitzuari dagokienez ere. Ildo horretatik esan du lehen fasea izan zela, oso zaila, hainbat alternatiba landu eta egungo egoerara heltzeko neurri batzuk hartu zireneko fasea. Prozesuan Jauregiak izango zuen biderapena edo nondik norakoa azaldu da aldian-aldian, arkitekturaren diseinuari eta funtzionamenduari dagokienez, zein iraunkorra izateko jatekoa jartzeari dagokienez.

Era berean, XVIII. mendeko eraikina denez gero, birgaitze lanak oso garestiak izan dira. Bizkaiko Foru Aldundiko Sustapen eta Lan Sailak ehun eta hogeita milioi pezetako dirulaguntza eman du, Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza Sailak berrogeita hamar milioi pezeta, Bizkaiko Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak hogeita bost milioi pezeta eta milioi bat eta bostehun mila pezeta turismo jarduerarako eta diseinu turistikorako dirulaguntza gisa.

Azkenik esan du hobetu egin daitekeela, hori egia da, eta, beraz, prest agertu da Leioako gizarte eta kultura dinamizatzeke planteatzen diren iradokizunak guztiekin konpartitzeko.

**PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak** honakoa adierazi du:

Osoko bilkuraren erabakien menpe dauden estatutuen 40. artikularen arabera, bazkideei baja emango zaie heriotzagatik edo elkartea desegiteagatik; 46. artikuluan ezarri denez, jakina, pertsona fisikoen eta juridikoen heriotzagatik edo elkartea desegiteagatik. Zuzendaritza Batzako kideen kasuan, aldiz, heriotzagatik baino ez da aipatzen. Hortaz, testuak koherentzia izan dezan, bi arrazoiak agertu beharko lirarteke: heriotzagatik edo elkartea desegiteagatik.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak egin duen ñabardura ondo iruditzen zaiola esan du; ñabardura hori testuan sartuko da.

## **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalbatzaren osoko bilkuran bozketa eginda, hauxe izan da emaitza: **hemeretzi aldeko boto**, EAJ-PNVko hamar ordezkariak; PSE-EE-PSOeko lau ordezkariak, PPko lau ordezkariak eta EAko ordezkariarena; eta **bi abstentzio**, IU-EBko zinegotzienak. Beraz hauxe erabaki du gehiengo osoz:

1.- Mendibile kaleko 42.ean dagoen Mendibile Jauregia izeneko Elkartearen sorrera onestea.

2.- Mendibile Jauregia Elkartearen eraketa onestea, eta baimena ematea Karmelo Sainz de la Maza alkate-udalburuari Elkartearen Eraketa Akta emateko Leioako Udalaren izenean, baita ekitaldi horretan Leioako Udalaren izenean Estatutuak onesteko ere.

3.- Zuzendaritzako Batzaren izendapena onestea Mendibile Jauregia Elkartearen Estatutuen arabera.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

- 4.- Ahalmena ematea alkate jaunari sortutako erakundea Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan inskribatzeko beharrezko kudeaketak egiteko Mendibile Jauregia Elkartearen izenean, betiere proposamenean ezarritakoaren arabera.
- 5.- Karmelo Sainz de la Maza Arrola Alkate-udalburu jauna Elkarteko presidentea izateko izendapena onestea bi urterako, eta kargua txandakatu egingo da presidenteordearekin.

**5.- EB-IU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO ERABAKI-PROPOSAMENA, SAHARAR HERRIAREN EGOERARI BURUZKOA:** 2004ko apirilaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bilera onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 341/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2004ko apirilaren 6an hartu zuen 53. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Posta elektronikoaren bidez, IU-EBko Rubén Belandia Fradejas jaunak idazkia bidali du (sarrera-erregistroko zenbakia: 1937/04); idazkiak honako testuak ditu:

**“NAZIOARTEKO MARTXA, MENDEBALDEKO SAHARA ZATITZEN DUEN LOTSAREN HARRSIRA**  
*Bakea eta autodeterminazioa saharar herriarentzat*  
*Eska diezaiogun NBEri agindutakoa bete dezala!*

Marokok Sahara okupatu zuenetik 28 urte baino gehiago igaro dira, eta, gure ustez, bada garaia saharar herriak bere etorkizunari buruzko erabakia hartzeko, saharar herriari autodeterminazioari buruzko erreferenduma egiteko aukera emateko. Auziari irtenbide politiko bidezkoa eta demokratikoa emateko ahalegin guztiak ezerezean gelditzen ari dira, Marokok bereari eusten diolako.

Hori dela eta, milaka saharar bizi dira errefuxiatuen kanpamenduetan, beren herritik kanpo eta oinarrizko beharrak asetzeko nazioarteko elkartasunaren mende. Gainera, zuzeneko hainbat eta hainbat biktima eragin ditu Marokoren okupazioak; 2.000 km-tik gorako lotsaren harresiaren barruan bizi dira, milioi bat mina dauden lur eremuan, eta zapalkuntza lazgarria eta Giza Eskubideen era guztietako urraketak jasanez.

Fronte Polisarioak jakinarazi du prest dagoela NBEk Mendebaldeko Saharara igorritako Idazkari Gorenak, James Bakerrek, egindako proposamena aztertzeko, eta erabaki horri esker, gatazka luze honi irtenbide justu, baketsu eta hitzartua emateko aukera sortu da.

Marokok, baina, ez du onartu NBEren plana ezartzeko elkarrizketak hasteko proposamena, eta saharar herriaren sufrimendua alferrik eta bidegabeki luzatzea ekarriko du horrek. Hori dela-eta, **“Bakearen aldeko martxa, Mendebaldeko Sahara zatitzen duen lotsaren harresira”** ekimenean parte hartzeko deia egiten diegu erakundeei eta gizarte zibileko eragile guztiei. Marokoren okupazioaren kontrako jarrera adierazteko ekimen sinbolikoa izango da, eta apirilaren 22tik 25era gauzatuko da.

Saharar Herriarekiko Erakunde Solidarioen Estatu Federazioak, Saharar Herriaren Adiskideen Elkarteen Estatu Koordinakundeak, “Bakea Saharar Herriarentzat” Parlamentuko Talde arteko Batzordeek elkartasunezko martxa honetan parte hartzeko gonbita egiten diete euskal erakundeei eta estatukoei, harresiak bereizita bizitzera behartuta dauden saharar familien egoera salatzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, EB-IU Udal Taldeak eskatzen du premia onartzea honako hitzarmen hau:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

## HITZARMENA

- 1.- Leioako Udalak NBERi eta Nazioarteko Komunitateari eskatzen die Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak bete ditzatela, eta behin betiko irtenbidea eman diezaietela luzaroan ahaztuta egon den herri horren sufrimenduari eta tragediari, 28 urte baitaramatza justizia eske.
- 2.- Leioako Udalak bat egiten du "Bakearen aldeko martxa, Mendebaldeko Sahara zatitzen duen lotsaren harresira" ekimenarekin, eta ordezkaritza bidaliko du martxa horretara, gure herriak sahararrei elkartasuna erakusteko.
- 3.- Hitzarmen hau Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluari, Espainiako gobernuaren presidenteari eta lehendakariari igorriko zaie."

### "MARCHA INTERNACIONAL AL MURO DE LA VERGÜENZA QUE DIVIDE EL SAHARA OCCIDENTAL

*Por la paz y autodeterminación del pueblo saharauí*

*¡¡Exijamos a la ONU que cumpla sus compromisos!!*

*Tras más de 28 años de ocupación marroquí, creemos que ha llegado la hora de que se dé al Pueblo Saharaui la oportunidad real de decidir sobre su futuro, mediante la celebración de un referéndum de autodeterminación. Los intentos de llegar a una solución política justa y democrática están siendo boicoteados por la postura intransigente de Marruecos.*

*Como consecuencia, decenas de miles de saharauis sufren el exilio en los Campamentos de refugiados fuera de sus fronteras y dependiendo de la solidaridad internacional para cubrir las necesidades más elementales. Por no hablar de las víctimas directas de la ocupación militar marroquí que se encuentran encerrados detrás del muro de la vergüenza de más 2.000Km, sembrado por más de un millón de minas y sometidos en las zonas ocupadas a una brutal represión y violación de los Derechos Humanos.*

*La aceptación por el Frente POLISARIO de estudiar la propuesta realizada por el enviado personal del Secretario General de la ONU al Sahara Occidental, James Baker, ha abierto una nueva vía para una solución justa, pacífica, y negociada de este largo conflicto.*

*Ante la negativa de Marruecos a iniciar conversaciones para la aplicación del plan de la ONU, que supondría de hecho la prolongación innecesaria e injusta del sufrimiento del pueblo saharauí, se ha realizado un llamamiento a todas las Instituciones y a la sociedad civil a participar en la "Marcha por la Paz al muro de la vergüenza que divide el Sahara Occidental" que se celebrará del 22 al 25 de abril y así, de forma simbólica, mostrar nuestro rechazo a la ocupación marroquí.*

*La Federación Estatal de Instituciones Solidarias con el Pueblo Saharaui, la Coordinadora Estatal de Asociaciones de Amigos del Pueblo Saharaui, los Intergrupos Parlamentarios "Paz para el Pueblo Saharaui" y la Asociación Internacional de Juristas por el Sahara Occidental, invita a las instituciones vascas y estatales a participar en esta marcha solidaria para denunciar la situación de las familias saharauis que se ven obligadas a permanecer separadas a ambos lados del muro.*

*Por esto, el Grupo Municipal de EB-IU solicita la urgente adopción del siguiente:*

### ACUERDO

- 1.- El Ayuntamiento de Leioa exige a la ONU y a la Comunidad Internacional que cumplan las resoluciones del Consejo de Seguridad y acabe de una vez por todas con el sufrimiento y la tragedia de un pueblo cruelmente olvidado que confía en la legalidad internacional y que espera, tras 28 años, que se haga justicia.
- 2.- El Ayuntamiento de Leioa se suma a la "Marcha por la Paz al muro de la vergüenza que divide el Sahara Occidental" y enviará una delegación a la misma para mostrar la solidaridad de nuestro pueblo con los/as saharuis.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

3.- *Este acuerdo será enviado al Consejo de Seguridad de Naciones Unidas, al presidente del gobierno español y al lehendakari.*

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak** egoki iritzi dio aurkeztutako erabaki-proposamena ontzat emateari eta, horrela bada, bertan aipatzen den **BAKEAREN ALDEKO MARTXAN** parte hartzea bultzatuko da; gaia udalaren osoko bilkurak aztertu gabe tramitatu beharko da, hori egitekotan martxan adierazitako egunak gaindituko bailirateke. PPko ordezkariak abstenitu egin dira, proposamena aztertzeke hausnarketa-aldia egon beharko litzatekeela uste dutelako.

### **EBAZPENA**

**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK jakin du** premia arrazoiengatik 230/04 dekretua eman dela eta erabaki-proposamenaren arabera, udalaren osoko bilkurak aztertzeke jarri behar da; beraz, aipatutako dekretua egingo den hurrengo bileran berresteko jarriko da.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

Adierazi du Ezker Batuak aurkeztu zuela gai hau Barne Araubideko Informazio Batzordean eta bertan esan zuela martxa apirilaren 22tik 25era bitartean egingo zenez, ebazpena alkatetza-dekretuaren bitartez emango zela premia arrazoiengatik, osoko bilkura honetan berretsiz. Era berean adierazi du boluntariorik egon ez zenez Txomin Aurrekoetxeari jakinarazi ziola, bera baita estatu osoan parlamentuko talde arteko ordezkaria, martxa horretara Leioako udalaren ordezkartzan joan zedin.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Adierazi du hemen proposatu dena mozioko hiru puntuak berrestea bada, bere alderdiak Batzordean azaldu zuen jarrera abstenitzea izan zela, gai horrek hausnartzeko denbora gehiago behar zuela uste zuelako; era berean, erantsi du bere ustez mozia aurkeztu duen alderdiak koherentziarik gabe jokatu duela: izan ere, mozio honen alde egin du baina era berean Gobernuko Presidente berria babesten du eta, antza denez, mozio honetan adierazitakoarekin koherentziarik ez duen politika daraman Marokon. Beraz Gobernuko Presidente berriari mozio hau bidaltzea proposatu du eta, era berean adierazi du bere ustez Leioako Udala ez dela foro egokia horrelako erabakiak aztertzeke.

**IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

PPko bozeramaileari erantzun dio, mozioak koherentziarik ez duela adierazi duelako. Izan ere, egia da Gobernuko gaur egungo Presidentea babesten dutela berarekin hitz egin daitekeelako eta Marokorekin harremanak berrezarri dituzenez, elkarriketaren bidez alahuiar erreinua konbentzitu ahal izango da Saharar herria bakean uzteko.

**PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak** honakoa adierazi du:

Adierazi du harreman arruntak izaten saiatu behar dela eta PPK izorratu zituela harremanak. Era berean adierazi du arrazoirik gabe eztabaidatzea harriz eta ahuntzez betetako lur-zati batengatik (azkenean Leila uharteko ahuntzek ere deklaratu digute gerra) ez dela bidea eta harreman horiek normalizatzen saiatzea ez dagoela kontraesanean Marokoko erreinuari Saharari buruz daukaten iritzia adieraztearekin.

Halaber, PPko bozeramaileari esan dio bere ustez Leioako Udala ez bada horrelako mozioak aztertzeke foroa, are gutxiago izango dela horri buruz egin dituen iruzkinak egiteko.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Amaitzeko esan du bere ustez ez dela batere serioa mundu osoarekin liskarrean ibili den alderdia horrelako gauzak esaten ibiltzea.

## BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak osoko bilkuran eta **gehiengoaren** aldeko botoarekin, apirilaren 14ko 230/04 dekretua **berrestea erabaki** du; hori premiazko arrazoiengatik eman zen eta Saharar Herriaren egoerari buruzko erabaki-proposamena onesten du, EB-IU Udal Taldeak aurkeztuta. Hauxe izan da bozketaren emaitza: aldeko hamazazpi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak, IU-EBko bi ordezkariak eta EAko zinegotziarena; era berean, lau abstentzio egon dira, PPko lau zinegotzienak, alegia.

**6.- MANU AZKARATE JASATEN ARI DEN EGOERARI BURUZKO ERABAKI-PROPOSAMENA:** 2004ko apirilaren 27an Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileran onetsi zen Alkatetza-Udalburutzaren 340/2004 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari; osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2004ko apirilaren 6an hartu zuen 52. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Informazio Batzorde honek, martxoaren 2an egindako bileran, 38/04 zenbakidun irizpena hartu zuen. Irizpen hori jarraian transkribatzen da:

*“04.02.23an, 1020/04 sarrera-erregistro zenbakiarekin, Leioa Abian taldeak euskarazko idazkia aurkeztu zuen. Idazki horren testua honako hau da:*

*“Manu Azkarate Tolosaldeko egoera larria dela eta, aurkeztutako mozioa hurrengo plenoko gai-zerrendan sartu eta Leioako Udalak berarekin bat egitea eskatzen dugu.*

### MOZIOA

*2004ko urtarrilaren 14an Manu Azkarate Tolosaldeko preso politiko ohia atxilotu zuten Martuteneko espetxean, gizarte laguntzailearengana ohiko hitzordura agertu zenean.*

*Jakina da, Manu Azkarate 1992an gaixotasun sendaezin eta kroniko bat duelako geratu zela baldintzapeko askatasunean orduko kode penaleko 60 artikulua eta egungo 92 artikulua babesean. Bere espetxealdiko azken garaian denbora gehiago pasatzen zuen ospitalean presondegian baino, eta makina bat ebakuntza ere jasan izan behar izan ditu preso zegoela eta baldintzapeko askatasunean egonik ere. Bestalde, medikazio oso hertsia du eta beste edozein pertsona baino zaintza handiagoa behar du elikadura aldetik ere.*

*Ondorioz, eta bere gaixotasunaren ezaugarriak kontuan izanik, kartzelaratzek izan dezakeen eragina izugarria da, sor diezaiokeen kaltea itzulezina izan daitekeelarik.*

*Atxiloketa honekin, Estatu Espainiarrak Euskal Herria eta bere eskubideen alde lanean ari diren guztiak suntsitzeko hartu duen erabakia agerian utzi du beste behin ere.*

*Berriz ere, herri eta herritar gisa ditugun eskubide kolektibo eta indibidual guztien gainetik, indarraren arazoia geratzen da agerian Estatuaren aldetik.*

*Manu kartzelaratzeko mahai ganean jarri dituzten aitzakiak, horixe, banan bana funtsik gabe erortzen diren aitzakiak besterik ez dira. Oso ondo dakite espetxe zaintzatik eman dituzten argudioak hutsalak direla, ez direla egia eta hori argitzeko frogak beraien eskuetan daudela.*

*Manu Azkarateri eta bere ingurukoei bizitzea tokatzen ari zaien une larri hauetan, osoko Udal Batzar honek, honako puntu hauek onartzen ditu:*



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

- 1.- *Manu Azkarateren berehalako askatasuna exijitzen du Udal honek.*
- 2.- *Atxiloketa honen ondorioz bizitzen ari diren une latz hauetan Udal honek, Manu Azkarate bera eta bere senitartekoei elkartasunik beroena adierazten die.*
- 3.- *Udal honen ustez, Manuren atxiloketarekin herri hau eta bere herritarrek dituzten eskubideen aurrean estatu espainiarrak bere mespretxurik handiena utzi du agerian; Gaixo sendaezin bat gezurrezko argudioekin kartzelan sartuaz, bere bizitzak duen arriskua axola gabe.*
- 4.- *Udal honek, Manuren atxiloketaren aurrean hainbat alderdi eta komunikabideek duten jarrera salatu nahi dute, gertaeraren larritasuna isildu eta beste alde batera begiratzen dutelako.*
- 5.- *Manu Azkarateren askatasuna exijitzeko elkarretaratze bat konbokatzen du Udal honek, eta helburu horrekin egingo diren gainontzeko mobilizazio guztietan parte hartzeko deia egiten die herritarrei.”*

Aurreko dokumentu hori gaztelaniara itzuli da honela:

*“Debido a la grave situación que está padeciendo el tolosarra Manu Azkarate, solicitamos se incluya en el orden del día del próximo pleno la moción que presentamos y que el Ayuntamiento de Leioa se adhiera a ella.*

#### MOCIÓN

*El 14 de febrero encarcelaron al ex preso político tolosarra Manu Azkarate en la cárcel de Martutene, cuando asistió a su cita habitual con el asistente social.*

*Sabemos que Manu Azkarate se encuentra en libertad provisional desde 1992 por enfermedad incurable crónica, acogándose al artículo 60 del código penal de entonces y al artículo 92 actual. En la última etapa de su encarcelación pasó más tiempo hospitalizado que en prisión y se sometió a infinidad de operaciones mientras estaba preso y también cuando estuvo en libertad provisional. Por otro lado, tiene una medicación muy estricta y necesita más cuidado que cualquier otra persona en su alimentación.*

*Por lo tanto, teniendo en cuenta las características de su enfermedad, las consecuencias de la encarcelación pueden ser terribles, pudiendo llegar a ocasionar daños irreversibles.*

*Con esta encarcelación, el Estado Español a vuelto a dejar presente su decisión de acabar con las personas que trabajan a favor de los derechos de Euskal Herria.*

*De nuevo queda presente la utilización por parte del Estado, de la razón de la fuerza ante los derechos colectivos e individuales que tenemos como pueblo y como ciudadanos.*

*Las excusas que han dado para la encarcelación de Manu, no han sido mas que meras excusas, que han ido cayendo por su propio peso. La vigilancia penitenciaria sabe perfectamente que sus argumentos son vanos, no son verdaderos y que las pruebas que aclaran la situación están en sus manos.*

*El Pleno de este Ayuntamiento, en estos duros momentos que les está tocando vivir a Manu Azkarate y a sus allegados, acepta los siguientes puntos:*

- 1.- *Este Ayuntamiento exige la inmediata puesta en libertad de Manu Azkarate*
- 2.- *Este Ayuntamiento expresa su solidaridad a Manu Azkarate y sus familiares, por la dura situación que viven a consecuencia de este encarcelamiento.*
- 3.- *Este Ayuntamiento opina que la encarcelación de Manu, pone de manifiesto todo el gran desprecio hacia los derechos que tienen este pueblo y sus ciudadanos: Encarcelan a una persona enferma utilizando falsos argumentos y sin importarles poner en peligro su vida.*
- 4.- *Este Ayuntamiento quiere denunciar la actitud de algunos partidos y medios de comunicación, ya que callan ante la gravedad del asunto y miran hacia otro lado.*



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

5.- *Este Ayuntamiento convoca una concentración para exigir la libertad de Manu Azkarate y hace un llamamiento a todo el pueblo para participar en todas las movilizaciones que se hagan con este fin.*”

*En relación con este asunto, en líneas generales, se reprodujeron los planteamientos expresados en el dictamen anterior los cuales, para la debida constancia en el expediente, se reproducen a continuación:*

*“PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak eta Aiala Eguiluz Rodríguez andreak adierazi dute harrituta daudela erakunde terrorista batekin lotura izan dezakeen legez kanpoko erakunde batek aurkeztutako proposamena Udalean izapiderako onartu izanagatik. Halaber, planteatutako gaiari buruz, adierazi dute hori aintzat hartzearen aurka daudela erabat, eta gai hori Batzordearen gai-zerrendatik kanpo uztea eskatu dute.*

*PSE-EE-PSOeko José Manuel Toledo Cañamero jaunak eta Mercedes Angulo Ordozgoiti andreak adierazi dutenez, euren iritziz, orduan Leioa Abian taldeak aurkeztutako hautagai-zerrenda utzi zen legez kanpo, eta ez hauteskunde-taldea. Nolanahi ere, egindako eskariari jaramon egitearen alde ez daudela adierazi dute.(...)*

*EAKo Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak planteatu duenez, itxura kontuak alde batera utzita, edukizko arazoari buruz iritzia ematea bidezkoa den ala ez erabaki beharko litzateke.*

*EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jaunaren, Javier Bidea Molinillo jaunaren, Iñaki Goikoetxea Gordo jaunaren eta Bea Resa Bardeci andrearen iritziz, hauteskunde aurreko garaian gaudela kontuan hartuta, une hau ez da onena planteatutako gaia aztertzeke, eta hori ere Batzordeko zenbait kidek aipatutako legitimazio-arazoak alde batera utzita.”*

*Hala ere, PSE-EE-PSOeko ordezkariak zehaztu dute proposamena izapidetu beharko litzatekeela, pertsona orok eskubidea baitu komenigarritzat duena planteatzeko.*

*IU-EBko ordezkariaren iritziz, proposamena izapidetu beharko litzateke.*

*PPko ordezkariak aurreko irizpenean esandakoari eutsi zion.*

*EA eta EAJ-PNVko ordezkarien iritziz, itxurazko gaiak alde batera utzita, gaiaren edukia aztertu beharko litzateke.*

*Barne Araubideko Informazio Batzordeak gaia mahai gainean uztearen aldeko irizpena eman du; horrela, dena den, planteatutako asmoari buruzko iritzia adierazi zuten taldeei ez zaie eragotziko horri buruzko irizpidea agertzea.”*

EAJ-PNVko eta EAKo ordezkariak ondoko testua aurkeztu zuten, aurretiaz transkribatutakoaren alternatiba gisa:

#### “EAJ-PNV ETA EA ALDERDIEN MOZINO ALTERNATIBOA MANU AZKARATEREN EGOERARI BURUZ

Eusko Legebiltzarrean eztabaidatutakoagaz bat etorriz, Osoko Bilkurari hurrengo MOZINO ALTERNATIBOA aurkezten deusagu:

- Eusko Legebiltzarrari eskatzen jago José Manuel Azkarate Ramos aske uztea eta Zigor Kodeko 92. artikuluan azaltzen diren gizaldezko printzipioak ezartzea.
- Espainiako Gobernuak daukan espetxeen ganeko politikaren aurka gagozala berresten dogu; izan be, politika horrek espetxeei buruzko legeria zauritzen du eta zigor gehigarria ezartzen deutse askatasuna kentzeko zigorra betetzen ari diran presoiei. Ondorioz, legez kontra, preso horien familiakoek ere zigor bera jasaten dabe.
- Jose Manuel Azkarateren familiakoei gure elkartasuna adierazo gura deutsegu, bizitzen ari diren une latz honeetan.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

- Erabagi hau Madrilgo Auzitegi Nazionaleko Espetxeratuen Zaintzako Epaileari (bera izanik askatasun eskaerea tramitatu behar aduana) eta Martuteneko espetxeko zuzendariari jakinarazoko jake.”

-----

**“MOCION ALTERNATIVA QUE PRESENTAN EAJ-PNV Y EA  
RESPECTO DE LA SITUACIÓN DE MANU AZKARATE**

*En consonancia con lo debatido en el Parlamento Vasco presentamos al Pleno la siguiente MOCION ALTERNATIVA:*

- *El Ayuntamiento de Leioa reclama la puesta en libertad de José Manuel Azkarate Ramos y exige una aplicación acorde a principios humanitarios del artículo 92 del Código Penal.*
- *Reiteramos nuestra oposición a la política penitenciaria llevada a cabo por el Gobierno Español, que supone una vulneración de la legislación penitenciaria, e incorpora una pena añadida a los que cumplen penas de privación de libertad y extiende el castigo de forma ilegítima a los familiares de los mismos.*
- *Manifestar nuestra solidaridad con los familiares de José Manuel Azkarate en estos momentos difíciles.*
- *Este acuerdo se dará a conocer al juez de Vigilancia Penitenciaria de la Audiencia Nacional de Madrid, encargado de tramitar su solicitud de libertad y al director de la prisión de Martutene.”*

**Barne Araubideko Informazio Batzordeak**, alde batetik EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jaunaren, Javier Bidea Molinillo jaunaren, Ainara Urbieta Bergara andrearen eta Iñaki Goikoetxea Gordo jaunaren, IU-EBko Ruben Belandia Fradejas jaunaren eta EAKo Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunaren aldeko botoekin, Leioa Abian taldeak egindako proposamena nahiz EAJ-PNV eta EAKo zinegotziek aurkeztutakoa osoko bilkuran aztertzeke aurkeztea bidezkotzat jo dute. PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo eta Nieves Hurtado Urtiaga andreek eta PPko Xabier Olabarrieta eta Arturo Aldecoa Ruiz jaunek euren boto partikularra eman dute, euren iritziz udalaren osoko bilkurara proposamen alternatiboa bakarrik eraman beharko litzatekeelako.

**EBAZPENA**

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK gai hori onesteko **dekretua eman du**. Bada, gai hau udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

**PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak** honakoa adierazi du:

Lehendabizi, Udalean eztabaida hau sorrarazi duen idazkiari buruz adierazi du arrazoizko zalantza dutela gaurko Osoko Bilkuran eztabaida politikoa sorraraz dezakeen idazkia ote den, idazkia egin duen taldea Epaitegietan ikertzen ari delako, kasualitatez mugimendu terrorista batean dagoen beste talde batekin duen harremanagatik. Beraz, testuaren jatorria ez zaie iruditzen *non santo*; orduan, PNVk eta EAK aurkeztutako proposamen alternatiboa ere ez da bidezkoa, jatorri nahiko zalantzarria duen idazki baten idazki alternatiboa delako. Halaber, adierazi duenez, Batzordean orduan idazkia egin zuen taldearen hautagai-zerrenda legez kanpokoa dela esan zen, eta beraz, ezin izan zen hauteskundeetan aurkeztu; baina horretaz gain, hautagai-zerrenda hori proposatu zuen taldea ere legez kanpo zegoen, eta horregatik



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

baliogabetu zen zerrenda hori. Beraz, uste dute “Leioa Abian” izeneko taldearen hasierako idazkia ezin dela eztabaidatu, azaldu dituen arrazoiengatik, eta horregatik ez da bidezkoa proposamen alternatiboa eztabaidatzea.

Jarraian adierazi du gaiari buruzko interesa izan dutela, arrazoizkoa iruditzen zaielako zer planteatzen den jakitea. Pertsona baten kasua da, zehazki José Manuel Azkarate Ramosena; pertsona hori 1986an atxilotu eta espetxeratu zuten, Bizkaia komandoko kide izateagatik eta Bilboko Athletic Klubeko zuzendari baten bahiketan parte hartzeagatik. *In fraganti* atxilotu zuten, bahitutako pertsona hori askatu zuten unean bertan. José Manuel Azkarate Ramosi 51 urteko espetxe zigorra ezarri zioten, besteak beste legez kanpoko atxiloketagatik, lapurrettagatik, faltsutzeagatik, banda armatuetako kide izateagatik eta lehegailuak edukitzeagatik. Bizitzaren gorabeherak direla-eta, antza denez, 90eko hamarkadan gaixotasun bat izan zuen, eta gaixotasun larria eta sendaezina denez, 1992ko abenduaren 26an aske utzi zuten baldintza batzuekin, eta berak uneren batean horiek betetzeari utzi zion. Horri buruz, esan duen guztia hemerrotekan eta datu-baseetan aztertu duela adierazi du, eta zehaztu du aurtengo lehenengo egunetan Epaile batek espetxeratzea agindu zuela, eta hainbat alderdi politikok, Euzko Alderdi Jeltzaleak, Eusko Alkartasunak, Ezker Batuak eta beste hainbat erakundek kanpaina bat antolatu zutela José Manuel Azkarateren askatasuna eskatzeko; berak ez du zalantzan jartzen gaixotasun bat duenik, ez du zalantzan jartzen 51 urteko espetxe zigorra duenik bahiketagatik eta banda terrorista batean parte hartzeagatik, baina aske jarri zutenean baldintza batzuk ezarri zizkioten.

Gai horri buruz duten azken albistea hauxe da: duela bederatzi egun eskas ezagutarazi den auto batean, Epaileak hirugarren graduan sailkatzea erabaki du, betiere borondatez presoak onartzen badu zentrotik kanpo non dagoen kontrolatzea, Espetxe Administrazioak emandako dispositibo telematiko egokien bidez. Dispositibo hori presoak non dagoen jakiteko balio duen eskuturreko bat izan ahalko litzateke.

Epailearen ebazpenak dioenez, ezarritako kontrola onartu ezean, eta baldintzapeko askatasuna eskuratzeko eskakizunetako bat ere betetzen duela ikusirik, pertsona horrek tratamenduko 2. graduan jarraituko du, baldintzapeko askatasuna eskuratzeko baldintzak betetzen ez diren bitartean.

Eskakizunei dagokienez, adierazi du gaixo larriak ez duela egiaztatu behar zigorraren  $\frac{3}{4}$  bete dituela, baina baldintzapeko askatasuna lortzeko, horrek ez du esan nahi soil-soilik presoaren borondatearen mendean dauden baldintzak eskatu behar ez direnik, besteak beste banda terroristarekiko lotura haustea eta biktimei barkamena eskatzea. José Manuel Azkaratek ez du adierazi indarkeriaren aurka dagoenik, ezta bere delituen biktimei barkamena eskatu; hortaz, uste du egoera argi dagoela, eta jarrera horrek ez duela ezer onik adierazten; halaber, esan du errespetatu egingo dutela Epaileak dioena.

Azkenik, esan du penagarria dela kasu zehatz batzuetan mobilizazioak egitea; izan ere, mende laurden batean mobilizazio bat bera ere ez da egin Euskadiri mina eta pairamena baizik ekarri ez dion doilor koadrila baten ekintzak jasan izan dituen eta jasaten dituen jendearen alde. Hortaz, lehenengo mozioari buruzko botoa ez dute emango, ez duelako zentzurik. Eta bigarren proposamenari dagokionez, ez dute horren alde egingo, Epaileak erabakitzen duenaren zain geratuko direlako.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

Horri dagokionez esan du bozketa egingo dela EAJ-PNVk eta EAK aurkeztutako proposamenari buruzko. Planteatzen den testua Eusko Legebiltzarrean Ezker Batua, Eusko Alkartasuna eta Euzko Alderdi Jeltzalea alderdi politikoen onartutakoa izango da.

Jarraian esan du benetako zuzenbide-estatu batean pertsonen eskubideak murriztu ahal direla arau edo epai baten bidez, eta Batasuna alderdia legez kanpo jartzeari buruz edo



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Leioa Abian hautagai-zerrenda ez aurkezteko oinarrian zegoen oinarri juridikoari eta justiziarri buruz iritzi pertsonala izatearen kalterik gabe, kontua da udalean dokumentu hori aurkeztu duen taldeari ez zaiola kendu udalean idazki hori aurkezteko eskubiderik, ezta modu formalean kendu ere, erakunde hori ez delako legez kanpo utzi; epaitegi bidez soilik adierazi da ezin dutela hautagai-zerrenda gisa udal hauteskundeetan aurkeztu. Beraz, balio-judizioak alde batera utzita, eskubideen murrizketa hori hainbat mugarekin hartu behar da, eta berak, Alkate den neurrian, dokumentu hori hartzeko betebeharra du, horrekin ados ez egon arren.

**IU-EBko Rubén Belandia Fradejas jaunak** honakoa adierazi du:

Formari buruz, batzordean bertan azaldu zuen herritar talde horrek eskubidea osoa zuela nahi zuena aurkezteko udaletxearen aurrean; hala ere, horri buruz adierazi dute egokiago ikusten dutela bai Eusko Alderdi Jeltzaleak eta bai EAK aurkeztutako mozioa.

Gaiaren mamiari helduta, azaldu du gizarte baten zibilizazio maila neurtzen dela giza eskubideen arabera, eta kasu honetan gaixorik dagoen eta espetxean egon ezin den pertsona bat errespetatu behar da; kalean egon behar da pertsona hori, giza eskubideak egon behar direlako beste edonolako irizpideen gainean, kontuan hartu gabe zer egin zuen, edo zeintzuk izan ziren bere kontra egindako salaketak edo epaileak esandakoa; giza eskubideak ezinbesteko oinarria izan behar baitira gure gizartearen elkarbizitza eraikitzeko.

Bigarren oinarritzko irispidea da berdintasuna, legearen aurrean denok tratamendu berdina izateko eskubidea, demokrazian ezarrita dagoen bezala, hori baita demokraziaren oinarritzko irizpideetako bat. Adierazi du oso gertu daudela Galindo jaunari 3. gradua eskuratzeko eskubidea eragin duten arrazoiak. Nahiz eta hark hilketak, bahiketak eta legearen kontrako lurperatzeak antolatu, nahiz eta diru publikoa erabiliz terrorismoaren aurka egin, eta nahiz eta inoiz ere barkamena eskatu ez duen, eta nahiz eta holako ekintzak gaitzetsi ez dituen, hor dago askatasuna lortzeko bidean; beraz, adierazi du legearen aurrean berdin tratatu behar direla, eta irizpide hori eten gabe urratzen ari den honetan Eusko Legebiltzarrean onartutako mozioaren aldeko babesa adierazi dute eta Azkarate jaunak libre egoteko duen eskubidea aldarrikatu dute.

**PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak** honakoa adierazi du:

Lehendabizi, mozio hau Osoko Bilkura honetan aurkeztu izanari buruz, Barne Araubideko Batzordean orduan adierazi zuten edozein elkartek beharrezkotzat jotzen duen edozein proposamen aurkezteko eskubidea duela; eta hain zuzen ere, legez kanpo jarritakoa hauteskunde-plataforma dela.

Hala ere, zehaztu du elkarte batek aurkezten duena ezin dela Osoko Bilkuran aurkeztu ez badago Udalean ordezkaritza duen alderdi batek sinatuta, eta eurek argi utzi zuten ez zeudela prest elkarte horrek aurkezten duen mozio bat bera ere onartzeko.

PNV-EAK aurkeztutako mozioaren edukari buruz, horren aurkako botoa emango dutela adierazi du; horri buruz esan du egia dela Aldekoa jaunak planteatutako guztia, mozioan 92. artikulua aipatzen delako, eta artikulua horren arabera, pertsona gaixo gisa bere errespetu guztia merezi duen jaun hori aske zegoen, eta arazoa sortu da aske egonda egin beharreko hainbat gauza ez zituelako betetzen, besteak beste ospitalera joatea. Gainera, antza denez, duela gutxiko auto judizial batean esan da berriro aske egon ahal izango dela hainbat eskakizun betetzeko konpromisoa hartzen badu; horri buruz, bere iritziz, espetxe-prozedura kritikatzeko duen mozio bat onartzea –hain zuzen ere hori baita eskatzen dena– kontraesana da. Berak uste du gizaki guztiek eskubideak dituztela, presoek ere bai, hain zuzen ere bere ustez bete egin diren giza eskubideak. Kontua da Azkarate jaunari askatasuna kendu zaiola eskakizun batzuk bete behar zituelako, denek eguneroko bizitzan bete behar dituzten bezala; eta kasu honetan, hura ETAKo preso izateagatik ez zaio iruditzen eskakizunak bestelakoak izan behar direnik; hortaz, ospitalera joan behar baldin badu, joan beharko du.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

Azkenik, esan du epaileei utzi beharko zaiela kasu honi buruz jarduten, eta espero du Azkarate jaunak konpromisoa hartuko duela kaleratzeko baldintzak betetzeko.

**PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak** honakoa adierazi du:

Ezker Batuak zibilizazioari buruz egin duen aipamenari dagokionez, adierazi du zibilizazioa dela bere alderdiko nahiz beste hainbat alderdi demokratikotako kideak lau urtez egon izana euren eserleketan, behin batean alderdi demokratiko bateko kide bati erail baino hiru egun lehenago *zeu izango zara hurrengo* esan zion pertsona baten aurrean. Hala ere, haiek joko demokratikoari eta itxura egokiei jaramon egin diete amorrus lehertu beharrean; hori da zibilizazioa, eta hori gertatzen ari da lur honetan.

Jarraian adierazi du herritarren, herritar guztien –terrorismo delituak egiten dituztenak barne– eskubide eta betebeharrak berdinak izan behar direla eta epaileek epaitu behar dituztela. Eta kasu honetan, gatazkan dauden ondasun juridikoak aztertu behar dira; hau da, zer da garrantzitsuagoa, denon segurtasuna ala pertsona batek gizalegezko tratamendua jasotzeko duen eskubidea? Legeak hainbat modu ezartzen ditu biak bete ahal izateko; eta helburu horrekin, soilik eskatzen da pertsona horrek besoko bat eraman dezala, non dagoen jakiteko. Hala eta guztiz ere, mozioak aurkezten dira Udaletan, Eusko Legebiltzarrean, Batzar Nagusietan, hori ere bete ez dadin. Hortaz, uste du zibilizazioa dela hori txintik esan gabe agoantatzea eta pentsatzen jarraitzea gizaki guztiek lan egiten dutela gizartea hobetzeko, eta batzuetan, planteamenduzko akats horiek ez direla garrantzitsuak.

Azkenik, esan du bere kidea erail zuenaren –iragartzean modu batean eraiketan lagundu egin baitzuen– burlazko begirada gogoratzen duen bakoitzean, hori gogoratzen duen bakoitzean, zibilizazioa zer den pentsatzen duela.

**IU-EBko Rubén Belandia Fradejas jaunak** honakoa adierazi du:

Aipatu diren gertakariei buruz adierazi du bera, lanbidez, liburuzaina dela, eta ikusi izan duela Francoren 25 bake urteak ospatzen dituen liburu bat, eta hori ospatzeko ekitaldien antolatzaile taldeko kideetako bat Alderdi Popularreko presidentea da. Hortaz, bere erantzukizuna da giza eskubide asko urratu izana, eta jende askok barkamenik eskatu ez izana, ezta errektifikazio keinu ñimiñoena ere egin ez izana: eta orain, ikusi behar dugu bere jarraitzaileek erabateko eskubidea daukatela nahi duten bezala pentsatzeko eta herriak ematen dien ordezkari eta duintasunarekin udaletan eta erakunde askotan egoteko.

Azkenik, esan du gure inguruan terroristak daudela, hori egia dela, baina ez dela oztopoa gizarte honetako giza eskubide guztiak betetzeko eta giza eskubide horiek bete behar direla ezartzen duten arauak lehentasunezkoak izateko.

**PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak** honakoa adierazi du:

Esan du ez duela eduki politikako kontuetan sartzeko asmorik, eta ez duela ezer esango Arturo Aldekoa jaunak terrorismoari buruz hitz egiteko erabili dituen terminoei buruz, uste baitu askotan egin duela hori, eta gainera denek bere iritzia zein den dakitela, baina gauza bat askotan esan du, eta ezin du onartu: hain zuzen ere, Rubén Belandia jaunak Alderdi Popularra legez kanpoko erakunde batekin konparatu du, eta are gutxiago onartuko du erakunde terrorista batekin konparatzea.

Jarraian, esan du bere alderdia eta bere familiako jende asko Francoren aurka borrokatu zela, eta denek dakitela bakoitza zein aldetan egon zen, baina hogeita hamar urte geroago, gai honetaz ari garela, eta jaun-andre hauek jasaten ari diren egoera kontuan hartuta, hark egin dituen aipamenak egiteari ez deritzo batere egokia.

Mozioari dagokionez, berretsi du denek nahi dutela giza eskubideak denontzat izan daitezen, espetsuean daudenentzat ere bai, giza eskubideak betetzen direla begiratu behar baita leku horretan ere; izan ere, jende horrek, preso dagoenez, beste hainbat pertsonak baino gizarte



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

bazterketa handiagoa jasaten du. Dena dela, adierazi du aldi berean legeak bete behar direla, eta kasu honetan, baldintzapeko askatasuna emateko baldintzei buruzko 92. artikulua bete egin behar da, herritar guztiek betebeharrak bete behar dituzten eta eskubideak eskuratzen dituzten bezalaxe. Beraz, erakunde terrorista bateko preso izateagatik ez du izango gaixotasun larri bat duen beste preso batek baino eskubide gehiago; hortaz, baldintzapeko askatasunerako eskubidea izango du ospitalera joateko betebeharrari jaramon egiten badio, eta uste du hori dela gutxienezkoa gaixo dagoen pertsona batentzat.

Azkenik, esan du puntu honetan egin diren konparaketak ez direla egin behar, ez direlako bidezkoak.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

Dokumentu biak osoko bilkuran aurkeztu direla esan du, baina bozketan EAJ-PNVk eta EAK aurkeztutako proposamena soilik aurkeztuko dela.

**PPko Arturo Aldecoa Ruiz jaunak** honakoa adierazi du:

Bozketan EAJ-PNVk eta EAK aurkeztutako proposamena soilik aurkezteari buruz Alkate jaunak esandakoari dagokionez, euren iritziz Batzordearen irizpenaren testuan ulertzen da mozio biak egongo zirela osoko bilkuran.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

Alkatetzaren irizpidea da Zinegotziek aurkeztutako proposamenari buruzko bozketa egitea; hortaz, Alkatetza-Udalburutzak EAJ-PNVk eta EAK aurkeztutako proposamenari buruzko bozketa egitea agindu du. Bozketa horren emaitza honako hau izan da:

## **BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalbatzak osoko bilkuran eta **gehiengoaren** aldeko botoarekin, EAJ-PNVk eta EAK Manu Azkarateren egoerari buruz aurkeztutako mozio alternatiboa **oneste erabaki** du. Hauxe izan da bozketaren emaitza: aldeko hamahiru boto, EAJ-PNVko hamar ordezkarienak, IU-EBko bi ordezkarienak eta EAKo zinegotziarena; aurkako botoak, berriz, zortzi izan dira, PPko lau ordezkarienak eta PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak

## **II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA**

**7.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2004-03-19tik 2004-04-23ra**: Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundearen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

**Udalaren osoko bilkura** jakinaren gainean geratu da.

## **8.- PRESAZKO MOZIOAK**

1978KO KONSTITUZIOAREN ONDOREN EGIN ZIREN LEHEN UDAL HAUTESKUNDE  
DEMOKRATIKOEN HOGEITA BOSGARREN URTEURRENARI BURUZKO ERAKUNDE-  
ADIERAZPENA.

Joan den apirilaren 3an, 1978ko Konstituzioa onetsi ondoren izan ziren lehen udal hauteskunde demokratikoen hogeita bosgarren urteurrena izan zen; izan ere, hauteskunde haiek aro berria ireki zuten eta, haiekin batera, aukera berriak sortu zitzaizkien Espainiako udalei. Hilabete batzuk lehenago onetsitako Konstituzioaren lehen adierazpena hauteskundeetan gertatu zen, hain zuzen ere demokrazia formala benetako demokrazia bihurtu zenekoa. Urteetan diktadorearen erregimenaren arabera eraendutako udalak sistema demokratikoaren parte izatera igaro ziren.

Harrezkero, bizikidetzaren eta herritarren parte-hartze demokratikoaren eredu berria ezartzearen ondorioz, gizarte eraldaketa historikoa gertatu da udaletan. Baina eraldaketa hori ez da erraza izan, eta etorkizunean ere zaila izango da. Tokiko korporazioek aparteko ahaleginak egin dituzte gizartearen eskarietara egokitzeko. Izan ere, demokrazia ezarri zenetik arazoei irtenbideak bilatzeko toki hurbila eta elkarrizketarako eta herritarren parte-hartzerako etengabeko joera ikusi du gizarteak udaletan.

Horren ondorioz, udalek jarduera berriei ekin zieten hainbat arlotan: gizarte prestazioen arloan, natur legatua zaintzearen arloan, hirigintza kudeaketan, haur hezkuntzan, etab. Eta horrek politika berriak abiaraztea ekarri zuen; kasu askotan ez zegoen horren inguruko politikarik, ezta beharrezko baliabiderik ere, eta hala 25 urteotan ebatzi gabeko tira-bira batzuk sortu dira.

Tokiko erakundeek egon dauden baliabideak eraginkortasunez kudeatzeko etengabeko ahaleginak egin behar dituzte, baina funtsezkoa dela irizten diogu bere esku dituen baliabideak apurka eta etengabe handitzeari, herritarren itxaropenak zapuztu ez daitezen. Hori dela-eta, bigarren deszentralizazioa ekarriko duen bigarren tokiko itun handiaren beharra aldarrikatzen dugu.

“Tokiko arazoei” bere horretan jarraituko dute benetako deszentralizazioko ekimenak hartzen ez badira, udalei zerbitzuak emateko duten ahalmen osoa erabiltzeko aukera ematen ez zaien bitartean, finantzaketa sistema egokia ziurtatzen ez zaien bitartean. Azken batean, Tokiko Autonomiaren Europako Kartaren aplikazioa betetzea, berrmatzea eta eskatzea da kontua, hain zuzen ere demokrazia errearen printzipioak babestu eta jagoten dituen tresna juridikoa. Printzipio horietako bat tokiko erakundeek gai publiko ugari herritarren mesederako arautzeko eta administratzeko eskubidea eta benetako ahalmena dira, betiere legearen barruan jokatuta.

XXI. mendearen hasieran, tokiko erakundeek esperantzari eutsi behar diote: udalei herri zerbitzuaren aldeko dedikazioa ukatzen bazaie ere, ukapen horri ordaina emango zaio Tokiko Administrazioaren eredu berri batekin. Eredu berri horrek inertzia zaharrak gainditu eta Tokiko Gobernuaren ereduaren bidean egin behar du aurrera, hots, bere arazoetan gero eta



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

autonomia handiagoa izan behar du udalak, disfuntzioak eta tirabirak saihestuko dituen eskumen multzoa zehaztuta, hori guztia herritarren eskariak bete ahal izateko nahikoa finantzaketaren ezinbesteko euskarria izanik. Azken batean, tokiko erakundeak indartzeko eboluzionatu behar da, eta gure herrian betetzeko dagoen deszentralizazioa errealitate bihurtzeko beharrezko erabakiak hartzeko eskatu behar zaie erabakiak hartzeko ahalmena duten erakunde eta organo guztiei.

Azaldutako eskakizun horiek gorabehera, udalek azken 25 urteetan egindako ekarpen handia aitortu behar dugu, aldaketak egiteko eta garapena burutzeko erakunde eragileak izan baitira. Atzerapenak gailenduz joateko bultzagarri handia izan da, eta kudeaketaren eta administrazio eraginkorren eredu moderno gisa agertu dira tokiko erakundeak, herri eginkizunaren aldeko kultura garatuta; izan ere, herri zerbitzuen inguruko iritzi berria eta demokrazia antolatzeke modu berria sortu dira, baina azaldu dugunez, orain artean egin dena aitortu arren, bidea egiteko dugula uste dugu, herritarren eskariak eraginkortasun handiagoaz beteko dituen Tokiko Administrazioa lortu ahal izateko.

Gogorarazi nahi dugu herri zerbitzua ematea beren bokazioa egin duten milaka korporaziokideek gorputz-arimak eman izanari esker gertatu direla udalen garapena eta aurrerapidea. Haien dedikazioa eta izpiritu zibikoa eta demokratikoa aitortzen dugu, zeren eta, behin-behinekotasunean eta eskuzabaltasunez baina irudimen eta ilusio handiz lan eginda, abian jarri dituzte udal erakundeak, hain zuzen ere gure sistema demokratikoa sendotzeko berebiziko garrantzia izan duten erakundeak.

Azkenik, ezinbestekoa da terrorismoaren aurka eginda beren ideien alde, Zuzenbideko Estatuaren alde eta askatasunaren garaipenaren alde urte hauetan bizia galdu duten zinegotziak eta alkateak omentzea. Horien guztien gorazarrea egin nahi dugu, baita gaur egunean udalean ETaren terrorismoaren mehatxuaren, koakzioaren eta txantajearen pean lan egiten dutenak ere. Demokraziak oro har eta udalek bereziki eskerrik onenak eman behar dizkiete, askatasunaren eta demokraziaren garaipenaren aldeko sakrifizioaren eta gorputz-arma ematearen adierazgarri handiena baitira.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Ondoren, mozioaren premiazkotasuna justifikatu du, eta horretarako, apirilaren 3an Konstituzioa onetsi ondoren egin ziren lehen udal hauteskunde demokratikoen 25. urteurrena izan dela adierazi du, eta apirilaren 19an udalaren eraketaren 25. urteurrena. Hortaz, apirileko osoko bilkura hau toki egokia da mozioa aurkezteko. Nolanahi ere, gaia Barne Erregimeneko Batzordean jorratzea gustatuko litzaiokeen, baina batzorde hori azken bi asteetan egin ez denez gero, azkenean premiazkotasunez aurkeztu behar izan dute mozioa osoko bilkuran, lehen udal hauteskunde 25. urteurrena bete delako hil honetan.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

Premiazkotasunari buruzko bozketa egin baino lehen, batzarkide batzuekin ospakizunari buruz berba egin duela esan du, eta horren inguruko proposamen bat aurkezteko asmoa izan du, are gehiago, ospakizuna egiteko asmoa izan du, azken 25 urteotan batzarkide izan diren guztiak batuta urriaren 31ren inguruan; izan ere, data hori adierazgarria da Leioan. Horren inguruko ospakizunek guztien adostasuna behar dute. Beraz, aurkeztutako mozioa Barne Erregimeneko Batzordeari bidaltzeko eskatuko lioke PPko bozeramaileari, guztiek parte har



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

dezaten, guztien arteko adostasunaren araberako ospakizuna presta dezaten eta horren araberako programa bat egin dezaten.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Premiazkotasuna adieraztea egokia dela uste dute, eta eguna betetzen denean une egokia da haien ustez premiazkotasuna korporazioan aztertzea. Baina horrek ez du eragotzi behar gero beste osoko bilkura garrantzitsuago bat egitea, hala nahi izanez gero.

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,** honakoa adierazi du:

Guztiz errespetagarria da PPko bozeramaileak adierazi duen aukera, baina premiazkotasuna atzera botako balitz, Barne Erregimeneko Batzordeari bidaliko lioke testua denon artean proposamen bat aurkezteko.

### **PREMIAZKOTASUNARI BURUZKO BOZKETA**

10 aldeko boto: PPko lau zinegotzien botoak, PSE-EE-PSOeko lau botoak eta IU-EBko ordezkarien bi botoak. 11 kontrako boto: EAJ-PNVko 10 ordezkarien botoak eta EAko ordezkari baten botoa. Hori guztia dela-eta, Udalbatzaren osoko bilkurak PPK aurkeztutako premiazkotasun-mozioa **atzera botatzea** erabaki du, *“1978ko Konstituzioaren ondoren lehen udal hauteskunde demokratikoen hogeita bosgarren urteurrena ospatzeko Erakunde-adierazpena”*ri buruzkoa.

### **BOTOAREN AZALPENA:**

**PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak** honakoa adierazi du:

Premiazkotasunari uko egin zaiola ikusita, betiko moduan baiezko botoa eman diote premiazkotasunari mozioa eztabaidatu ahal izateko, baina Batzordean denbora gehiagorekin jorratzea gustatuko zitzaiekeen. Hala posiblea izan ez denez gero, premiazkotasunari baiezko botoa eman behar zitzaiola uste dute.

**IU-EBko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak** honakoa adierazi du:

Beti bozkatzen dute mozioa eztabaidatzearen alde eta, gaur, testuan gustuko dituzten edo gustuko ez dituzten gauzak aipatu barik, apirileko osoko bilkuran apirilean betetzen diren gauzen inguruan berga egitea logikoa zela ematen du, behar bada beste gauza asko baino logikoagoa, zeren mozioetan eztabaidatu baitaitezke Udalean eztabaidatu beharko liritekeen gauzak. Eta mozio hau orain dela 25 apiriletako gertaerari buruzko erakunde-adierazpena denez, oso zentzuzkoa zela ematen du apirilean eztabaidatzea.

### **9.- ESKARIAK ETA GALDERAK.**

Ondoren, **PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak hitz egin eta galdera bi egin ditu:**

Lehenengo eta behin, Iberdrolak Pinuetan duen azpiestazioaren ingurumen-eraginaren azterlana zein egoeratan dagoen galdetu du; udal aurrekontuan onetsi zen hori. Bigarrenez, Leioako metroko aparkalekuko ibilgailuaren gaia nola dagoen galdetu du.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA  
BIZKAIA

**Alkate-Udalburu jaunak, EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jaunak,**  
honakoa adierazi du:

Lehenengo galderari dagokionez Ezker Batuaren ekimenez aurrekontuko konpromisoa dagoela eta Gobernu Taldeak bere gain hartu eta gauzatzeko konpromisoa duela adierazi du. Lehiaketa egin zen proiektu eta azterlanak idazten lan egingo duten talde profesionalak hautatzeko eta asteartean ebatzi zen hori Tokiko Gobernu Batzarrean; beraz, lehentasuna emango zaio adierazitako ingurumen-eraginaren azterlanari.

Bigarren galderari dagokionez, harremanetan jarraitzen dute Garraioetako Partzuergoarekin; bertan, Eneko Arruebarrena Hirigintzako zinegotzi arduradunak ordezkari du eta gai hori lantzen dabil; hurrengo Batzorde batean gaiari buruzko informazio zehatza eman ahal izango du.

Eta gaueko hamarrak eta berrogeita hamar minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE  
ALKATEA,

IDAZKARIA,